

# Berastegi 1823: “Berso berriac”

PATZIKU PERURENA\*

**N**orbaitek eskuz idatzitako bertsopaper zahar batzuk ekarri zizkidan Berastegitik, joan den hilbeltzean, Buzitiñeneko seme Javier Salbarredi adiskideak. Deustarako balio zutela uste banuen, non edo han argia emateko sueto.

Kopiak atera eta, paperak itzuli ere bai nik, handik hogeialdira edo. Harrezkeroztik askotan hizketatu gara elkarrekin, eta beti ailego bera Javierrek: *ezer egiñ al dek papertzar aikin*, despreziatuak baneuzka bezala edo. Nik ezetz, egoteko lasai, ailegatuko zaiela eguna.

Baita ailegatu ere. Ondoren datorren bertsopaper hauxe baituzu, Javierrek ikasminuz Berastegitik ekarritako hura. Eskuizkribuan dauden bezalaxe pasa ditut nik bertsoak ordenagailura, egilearen garai hartako ortografia deustan ere ukitu gabe, ustez behintzat. Hori bai, zenbait izen eta esaera, neronek nabarmendu ditut beltzez, irakurleak segituan antzeman dezan zertaz ari diren bertsoak.

Edozein modutan, nere eskusartzeak edo hankasartzeak xehero aztertu nahiko dituenak, lan honen akaberan dauka faksimil osoa.

Orain, atsegin baduzu, leitu aurrena bertso guziak, eta gero segiko dugu berriketan, hor tartean ageri den hainbat kontu ttiki jakingarriz:

## BERSO BERRIAC

1

Oraingo pasadizoa  
nai nuque declaratu  
izango dala derizat  
ni ceñec amparatu  
biñipiñ lagun guchic  
ez nabe encargatu:  
ez naizela galduco  
nai badet empeñatu  
cerbait iceguin gabe  
ez ninteque gueratu

2

Milla ta zorcireunda  
obei garren urtean  
¡O cer penac sortu ciran  
jendearen artean!  
cristandadea besteric  
ezan erreinu batean  
jangoicoaren leguea  
arturic oin pean  
postura onetan luzaro  
gu ecin gueundezquean.

\* Idazle/Escritor.

3

Au zan Marchoco illaren  
 bederaci-garrena  
**erregue** juramentura  
 obligatu zutena  
 publicatu cioten  
 bere bicia pena  
 ezpazuen eguin nay  
 aguincen ciotena  
 orduban cumplitu zuten  
 zori gaiztoco lema

5

Erregutu jesusi  
 ceñec bere partetic  
 len bailen libra dezala  
 trance orretatic  
 falta degun artean  
 au bere parajetic  
 sebuo izango guera  
 paquea izatetic  
 sin causa ezaigu irten  
 guizon ori echetic

7

Oso galdu ez dedin  
 gure nacioa,  
 condenatu dezagun  
 constitucioa,  
 libertade gaizto ta  
 droga ta sesioa  
 ori da legue orrec  
 dacarren lecioa  
 berriz ere bearco da  
 inquisicioa.

9

Guztien aguintari da  
**duque angulema**  
 gauzac componcen dabil  
 aldan ondoena  
 aren contra ciranac  
 daducaten pena  
 iñundic ecin eguin  
 berac nai duena  
 juezac emango du  
 bear dan ordena.

4

Beti presidioan  
 da gure **principea**  
 numbait ezayo combeni  
 gustoric izatea  
 baldin posible bada  
 biciric etorcea  
 demboraz billatuco du  
 onec bere cortea  
 ordubanchen egongo da  
 espanian paquea.

6

Estadu negargarrian  
 bear guenduen jarri,  
 lecu eman bacizayon  
 constitucioari  
 colorea eman arren  
 gañetic edergarri  
 religioric gabe  
 izango guiñan sarri  
 gauza ori sortu zutenac  
 bastante dira larri.

8

Orain guizona franco  
 badegu espanian  
 esperanza onetan  
 guiñaden aspaldian  
 cergatican cebilzan  
 chit asco picardian  
 erdic eciñ fiatu  
 echeco familian  
 lanic asco baguenduen  
 norc bere alderdian.

10

Alabatu dezagun  
 gorostidi jauna  
 Orrec mereci ditu  
 onrra eta fama  
 bera etorri zaigu  
 franciatic aurrena  
 obretan ezagun du  
 quizon fiña dana  
 ascoc icusi nai du  
 zucen dabillena.

11

Chit da balientea  
berorren batalloya  
beren alde daucazquite  
beac eta goya  
jangoicoac emanic  
orrelaco doaya  
guero ere atera du  
bere arrazoya  
graciac emateco  
orainchen da sasoya.

13

**Arzaya ta Soroa**  
nundic ote dabilza  
billa nabil arrastoac  
atera albaninza  
ecin cumplitu due  
eman zuen iza  
jangoicoac eztie eman  
orrenbeste dicha  
orain bijoaz *por alto*  
mereci duen guisa

15

Beren capitanarequin  
**peseta bicoac**  
lapurretan eguiteco  
gutziz ciran pijoac  
bazuec pobreac ciran  
besteac aundiscoac  
aizaqui ona zuten  
**anchicen mendicoac**  
ezdituzte atera  
prodijio gaiztoac.

17

Constituciozale  
picaro ingratoac  
lucifer eta Barrabaz  
ciran becin gaiztoac  
jan edan bicio gaizto  
gañeraco jocoac  
cumplituco bacidutzen  
guri quendutacoac  
eztaquit nola daduzcan  
biciric jangoicoac.

12

Viva viva **Goristidi**  
gure defensora  
oy au guizon estimatu  
pareric gabea  
aspaldi iduqui det nik  
bedorren galdea  
cuidadotan beti nola  
dabilen abadea  
asco amparatu du  
gure cristandadea

14

Orra irugarrena  
orain **Asura** jauna  
guizon abilla dala  
izandu du fama  
logratu izan balu  
deseo zuana  
laster galduco zuen  
gure legue ona  
baño beti esperanza  
jangoicoagana.

16

Oraingo cenbat guizon  
chit dira ajenteac  
baña gure ezquera  
arras inocenteac  
ya franco icusi du  
necazari jendeac  
orobat adizen dira  
beste trabajanteac  
eztu ñorco ongui arcen  
daducana quenceac.

18

Ñorco galdecen badu  
peseta bicoaz.  
aurtengo ardien guisa  
diranac badijoaz  
daño aundiric eztago  
oyec izcutatuaz  
oso ernegaturican  
cebilzan jangoicoaz  
notici obeac ditugu  
(..?..) mendicoaz.

19  
 Constitucio ori  
 bijoa noramala  
 erraz esan dezaquegu  
 arrazoya dala  
 cergatic atera zuen  
 pensamentu argala  
 aspaldian izan due  
 bear aimbat gala  
 orain cantacea due:  
 viva **lairon tragala**.

20  
 Orra orain obey verso  
 sermoy baten pare  
 oraingo ocasioac  
 obligatu nabe  
 iñorc eguin nai badu  
 arrazoyen jabe  
 miñ artuco duenac  
 nosqui badirade  
 orra nic declaratu  
 errecelo gabe

### ORDUKO GIRO POLITIKOAZ ZERBAIT

Bertsok beren garaian eta giroan ongi ulertzeko, Auspoaren Sail Nagusiko *Karlisten Leenengo Gerrateko Bertsoak* izeneko liburua leitzea komeni luke irakurleak, dena ez bada ere, gutxienez, gerrate “*realista*” delakoaz ari diren aurreneko ehunen bat orrialde bai behintzat; hantxe aurkituko baititu, hemengo kontu asko ulertzeko behar dituen argitasunak, Antonio Zavalak orriz orri emanak. Nik ere, hantxetik hartu ditut argibide asko, eta nere oharretan, *ASN4 (Auspoaren Sail Nagusia 4)* laburduraz adierazi, liburu haren aipamena egin dudan bakoitzean.

Frantzezia (1808-1814) bukatu ondoren, Espainiara itzuli zenean, Fernando zazpigarrenak Kadizko Konstituzioa (1812) baztertu eta berriz atzera *absolutismoa* ezarri zuen. Orduan, Konstituzioaren alde zirenek, *liberalek* alegia, herbestera jo behar izan zuten.

Gobernu *absolutista* hark sei uztez iraun zuen, baina 1820ko Urteberri egunean, Riego jenerala Konstituzioaren alde altxatu, eta han eta hemen aldeko asko sortu zitzaion esker, Fernando erregek berriz atzera amore eman behar izandu zion Konstituzioari. Martxoaren bederatzian zin eginarazi, eta biharamonean bertan publikarazi zioten liberalek, erregeak berak sinatua, honako agindu hau: *Marchemos francamente, y yo el primero, por la senda constitucional*. Bistako da, isilik bai, baina, berenak gogoan zituztela geldituko zirela *realista* zaharrak.

Beste hiru urtean (1820-1823), erdaraz *trienio liberal* deituan, eutsi zioten nolahala liberalek beren buruzagitzari, baina, belaxe *realistak* gailendu ziren atzera. Izanez ere, garai hartan, Europa osoan kasik, *abosolutismoa* baitzen nagusi. Baita Fraitzin bertan ere; hain xuxen, Luis XVIII erregeak bidali baitzitu, «*San Luisen ehun mila seme*» Espainiko *realistei* laguntzera.

Bidasoaz honuntz 1823ko apirilaren 7an igaro omen ziren soldadu *luistar* haiek, eta bidean eragozpen haundirik gabe, noski; aste bete baino lehen Bilbon baitziren, eta hilabete pasatxora berriz Madriden. Donostian, ordea, buirilaren 27ra arte ez omen ziren sartu; liberalak inon baino gailenago ziren sinale.

Dena dela, *realisten* gerraldi hark, badirudi, ez duela horrenbesteko arrastorik utzi gure gogoenean. Hala esaten baitu Antonio Zavalak ere:

...*realisten gerra ori (1821-1823) beste bi gerra aundiren arteko gerra txiki bat izan zan: frantzezia (1808-1814) eta leenengo gerrate karlista (1833-1839) bitartekoa. Eta aundiak txikia estali egiten du beti (ASN4, 53.or).*

## Bersa berriac.

Oraingo pasaduroa  
<sup>hura</sup> ~~pasaduroa~~ deklaratu  
 izango dala demorat  
 ni ni cenec amparatu  
 biniquin lagun guochie  
 ez nabe encargatu  
 ez nuzala galdueo  
 naibadit empenatu  
 cerbait icoguin gabe  
 ez nintezuz Gueratu.

Milla ta zoraromda  
 obei garrren urtean  
 a. cer penac porlu oran  
 jendaren arlean!  
 costandadia besteris  
 ean orcinu balean  
 jangoicaren liguea  
 arturic oin pean  
 postura ostant luxaro  
 gu oin querindez quean.

Au zan Marchaco illoren  
 bederaci garrona  
 orpeque juramintura  
 obligatu zutena  
 publicatu coiten  
 bere bicia pena  
 ez pazuen equin nay  
 aguncin ostena  
 Induban cumplitu zuten  
 zori gaiztoetoma

Peti presidon  
 da gure principex  
 numbrut exago comboni  
 justicia izatea  
 baldin penitit bada  
 boicic itorcea  
 domborax bellatucodu  
 once bere cortea  
 ordubanchien egungoda  
 espanian paquea.

33  
 Errogatu jesusi  
 cenec bere partetic  
 ten baiden libradozala  
 trance orretalic  
 folla degun arlean  
 au bere parajetic  
 seburo huanbopura  
 pinguca izatetic  
 sin ouia exaiju iten  
 guizon ori echetic.

Estadu negargarric  
 boar guanduen jarric  
 lecu eman baxizien  
 constitucioare  
 colorca eman arren  
 ganetic eder garri  
 religioic gabe  
 izango quinan sarre  
 gauza ori sortuzatenac  
 bastante dira larri.

Oro galdu ez dedin  
 gure nacioa  
 condonatu dezagun  
 constitucioa  
 libertade gure tota  
 droga ta sepioa  
 ori da leque orrec  
 lacarren leioa  
 berrez oro bearcada  
 inguiciva.

Orain guizona franco  
 badiga espanian  
 ofiran xa onetan  
 funaden aspaldian  
 cengatican cebildian  
 oit arce pueardian  
 erde oin fiata  
 echico familjan  
 lanic asco bayuenduen  
 nere bere alderdian.

<sup>13</sup>  
 Guethen aguntarida  
 duquian guhima  
 gauzac componendabil  
 aldan on boona  
 aren contra ciranac  
 daducaten pena  
 inundi eon eguin  
 bora naiducha  
 juzac emanyodu  
 beardan ordeno.

<sup>14</sup>  
 Alabalu dezagan  
 gorotidi jauka  
 orre merceditu  
 orra eta famoa  
 bora etori zaigu  
 frapostie aurrena  
 obrelan ezagundu  
 guizon fina dona  
 arcor icusi d'naidu  
 zuen dabillena.

<sup>15</sup>  
 Chit da balentia  
 berorren batalloya  
 beren alde daucazquite  
 beze eta goya  
 jangoicoae emanie  
 ordaco doaya  
 guero ore ateradu  
 bere arrazoya  
 graciae emateo  
 orainchen da sasoya.

<sup>16</sup>  
 Viva viva gorotidi  
 gure defensorca  
 oy au guizon estimatu  
 parenie gabea  
 aspaldi idugui dit nic  
 bedorren galdea  
 cuidadolan beti nola  
 dabillen abadea  
 arco amparatu du  
 gure orlandadea?

<sup>13</sup>  
 Hozaya ta Orosa  
 nundie ole dabilza  
 villa nabil arrastoc  
 atera albanixa  
 eon sumplitie due  
 eman zuen vza  
 jangoicoae ezlie eman  
 irrembeste dicha  
 orain bjoaz por alto  
 mereci duen guisa.

<sup>14</sup>  
 Oros irugarrona  
 orain atera jauka  
 guizon abelladala  
 izandudu fama  
 togratu izanbali  
 dizeo zuana  
 baste galduco zuen  
 gure luyi ona  
 bami beti esperan xa  
 jangoicoaganda.

<sup>15</sup>  
 Beren capitanequin  
 perca bicoae  
 lapurritan egiteo  
 guelix eran jijoae  
 bazuec pobreac aran  
 bestiae aundiscoae  
 aizagu ona zuten  
 anchicem mendicoae  
 ezbituzte atera  
 prodijio gauztoae

<sup>16</sup>  
 Orango combat guizon  
 chit dira gentiae  
 bama gure exquera  
 arras innocentiae  
 ya franco icusidu  
 pecazari fondeae  
 orobat ddizendira  
 beste trabajanteae  
 ezta inor ongiu arcen  
 daducana quenceae.

Conpluiciozale  
 picaro ingratoae  
 lucifer eta Parraabas  
 riran becin gaixtoae  
 jan edan, bicio gaizto  
 gaheraco jooae  
 simpluicio baciluzten  
 gubi quindutacoae  
 eztaguit nola daduzcan  
 bicirie jangoicoae.

Jnoze galdecen badu  
 pueta bicoax  
 aurtenge ardien guisa  
 dirandae badijoax  
 danu aundotio eztago  
 oyeec izcutatuax  
 osoz ornegaturicau  
 cebuzan jangoicoax  
 notici aua ditugu  
 mendicoax.

Constitucio ~~18~~ ori  
 bijoa noramala  
 orra epandeza que gu  
 orra rya dala  
 cergatic atera zuen  
 plensamentu argala  
 aspalduan izan du  
 beas aumbat gala  
 orain cegataea du  
 viva kauron tragala.

Oron orain obey verso  
 jermoy baten pare  
 orango ocaioae  
 obligatu nabe  
 inore equin nai bade  
 arrazoyen jabe  
 min artuzo duuae  
 norqu badirade  
 orra nic declaratu  
 orrecolo gabe

Horra zergatik pasa izanen ziren isil samarrean hemengo bertso hauek ere. Ez baitakigu gainera, inoiz imprimatu baziren ere. Nik ezetz uste, bestela, orduko inprentaren batean edo beste zokoren batean azalduko baitzen kopia moldez jotakoren bat. Eta nik dakidala, behintzat, ez da inon azaldu. Izan ere, orduko giroa, ez baitzen batere samurra izanen, bertsoak inprentaratu eta nolanaahi zabaltzen hasteko.

## NOIZ IDATZIAK OTE DIREN?

Nere suma oker ez badabil, Gorostidi jenerala Fraitzitik etorri eta liberalen aurka altxa zenetik gutxira, 1822 urtearen atzen aldera, edo 1823aren aurrenetan, idatziak behar dute bertsook. Edozein modutan ere *trienio liberala* (1820-23) azkeneko putzetan zela. Bertso sail honetako bigarrenak, hala-ko zerbait adierazten baitu, nere iduritan:

2

Milla ta zorcireunda obei garren urtean  
 ¡O cer penac sortu ciran jendearen artean!  
 cristandadea besteric ezan erreinu batean  
 jangoicoaren leguea arturic oin pean  
 postura onetan luzaro gu ecin gueundezquean.

Bertso horren bukaeran esaten den, "*postura onetan luzaro gu ecin gueundezquean*" horretatik, bai batirudi liberalen aldia ahulduxe eta *realistak* nagusitzen hasiak direla atzera. Horrez gainera, giputz *realisten* buruzagia, Gorostidi jenerala, goitisko harroturik dabilenekoak direla ematen dute honako hiru bertso hauek:

10

Alabatu dezagun **gorostidi** jauna  
 Orrec merci ditu onrra eta fama  
 bera **etorri zaigu franciatic** aurrena...

11

Chit da balientea berorren **batalloya**  
 beren alde daucazquite beac eta goya...  
 gracia emateco orainchen da sasoya.

12

Viva viva **Goristidi** gure defensora  
 oy au guizon estimatu pareric gabea...  
 asco amparatu du gure cristandadea

Inondik ere, liberalen kontrako burruka irabazixea dutela, Gorostidiren aldeko *realistak* animatzera datozela dirudi, bertso horiek.

Nola alde batekoak hala bestekoak, amorrugorrian gerran zebiltzala, nor atrebitu ordea, bertso horiek inprentaratu eta publikatzera? Nik uste, egilearen eskuetan bertan gelditu izanen zela bertso paper hau, sekulan inprentara gabe; eta ez asko fida, apaizen batek sermoian botatzeko idatziak izatea ere,



herriko jendeari Gorostidiren alde eragiteko. Hain zuzen, Tolosatik Donostira bitarte honetan izan baitzituzten *realistek* istilurik haundienak, *liberalak* mendean hartzeko.

Zirena zirela, bertsoon balio politikoarekin bukatzeko, honatx, berriz ere, Antonio Zavala jaunaren iritzi argigarria:

*Gerra orri realista esaten bazaio ere, karlisten leenengo gerratearekin zer ikusirik asko du. Izan ere, karlistatean burrukatu ziran bi taldeak ordurako osatuta baitzeuden: liberalak alde batetik, eta bestetik realistikak, andik urte gutxira karlistak izango ziranak alegia.*

## ORDUKO GUDALBURU BATZUK

Bertsopaper honetan azaltzen dira hainbat izen, gerrate hartan gudari buru ibili zirenenak, eta jakin nahi izatera, hona haietako batzuren argitasun batzuk:

**-Gorostidi:** Apaiz militar honetaz, hala dio Antonio Zavalak:

"Frantzisko Maria izenez, Albizturren jaioa. Frantsestean parte artu zuan, Espoz y Mina eta Jauregiren agindupean. Gerra ori bukatu eta Anoetako erretore izan zan. Ostera ere gerrara atera zan 1822an, liberalen aurka oraingoan, talde baten buruzagi. Erri eta toki izen asko aitatzen dira aren ibillaldietan: Zegama, Motriku, Zarautz, Aia, Urdaneta, Iraeta, Lastur, Itziar, Mendaro, Markina, Urrestilla, Beizama, Lizarra, Arroniz, Dicastillo, San Martzial, Irun, Bera-Bidasoa...

Gerra Ondoren, Fernando VII garrenak Santiago-Konpostelako kanonigo egin zuan. Erregea ildakoan, Don Karlosen alde armak artu zituan. Baiña, Cabana mendian, Tabeiros erriaren sailletan, Pontevedra probintzian, prisionero artu zuten, eta afusilatu.

Liburuxka bat atera zan aren guerrako ibilladiekin: *Relación histórica de las operaciones militares del Cuerpo de guipuzcoanos realistas acaudillados por el presbítero don Francisco María de Gorostidi... San Sebastián. Imprenta de Ignacio Ramón Baroja. Año 1824*. Argitalpen ontan oinarriturik, artikulua bat idatzi zuan Pio Barojak 1933 urtean: *O.C., tomo V, 1177*. orrialdean. Guk emen esandakoak idazlan orretatik artuak dira". (ASN4, 41.or.).

**-Artzaia:** Honela aitatzen du Aita Zavalak:

"Gaspar Jauregi jenerala, *Artzaia* esaten ziotena, Urretxukoa zan, eta gazte denboran artzai izana. Ortik beraren izengoitia. Frantzesen kontra asi zan gerran; eta , graduak irabaziz jeneral izateraiño iritxi. Fernando VII garrena erregea il zanean, Frantzian bizi zan. Baiña liberalak etorri arazi zuten, eta 1833ko azaroaren 6an *comandante de la columna de voluntarios de Guipúzcoa* izendatu". (ASN4, 131. or.)

Bere izenean ateratako bertso sail bat ere bazuen *Artzai* honek, Hona ale batzuk:

Don Gaspar de Jauregui orobat Artzaiak  
itzegiten dizute euskaldun anayak;  
entzun bada arretaz, nere ots ta deiak:  
ez dakar gauza onik seta edo leiak.

Probintzia onetan tropen buruzagi  
denbora gutxi dala nau erregiñak jarri  
sotilki nai nioke ekin nik lanari  
antustek ez nazan arrotu geiegi.

Ekusten banaiz ere gaur txit goratua,  
nere gazte denbora ez daukat aztua;  
nekazariatatik izanik sortua,  
oien galeraz nago agitz penatua.

Horra zurikeria eder askoak, bertso bidez nekazari jendea bereganatzeke.

**-Duque angulema:** Angulemako dukea, alegia. Luis Antonio Borbongoa zen, Artoisko kontearen semea. Bere lehengusina Maria Teresarekin, Luis XVI.aren alabarekin, ezkondu zen 1799an eta ez zuten ondorerik izan. Napoleonen aurka Midi aldeko jendea altxarazten saiatu zen. Bertsook ipini ziren garaian, *luistarren* gidari ibili zen Espainian barrena, baina, 1830an exiliatu egin zen atzera, aitarekin batera

**-Soroa:** maiz azaltzen da garai hartako bertso paperetan, baina, Aita Zabalak ere ez du ematen gudalburu liberal honen argitasunik.

Ikus, bestetan beste, ASN4, 20. orriko 22. bertso hasieran:

*Iriarte, Soroa –bijak ze mutillak!–  
Esanik dirianok ginala serbillak...*

**-Asura:** deitura ofiziala ote da *Asura*, edo izenordea, *Asurakoa* zelako? Zena zela, Eratsungo Asurako eta Zumarretzako burniolen jabe izandako Muñagorri eskribau eta foruzale sonatua ekarri dit gogora izen horrek. Gauza jakina baita Asuran lo eginez eta maiz ibilia zela. Ez ote zioten horregatik, herrian bertan, Berastegin alegia, *Asura* deituko? Muñagorri bera ez bada ere, ez ote liteke haren langile taldeko olagizon *Asurar* liberalen bat izan *Asura* hori? Auskalo... Uste baitut *Asura* apelidoko jende franko bazela Gipuzko aldean zabaldua, eta haietakoren bat izatea ere ez harritu, Asurako burniolekin eta Muñagorriekin deus ikustekorik ez duena.

**-Anchiz-en mendicoac (?):** *Anchiz* edo delako hori jende izena ote da? Nik uste baietz. Garai hartan soldadu talderen baten buru zebilena, baina, bertso gileak ongi menderatzen ez duen izena, seguru aski ere. Ikus hemezortzigarren bertso amaiera. Han ere, zalantzagatik edo, aipatu gabe uzten den izena hauxe bera dela baitirudi. Ez ote da *Frantxo* izanen? Ikus ASN4 an, 28 eta 41 orriak. Honela dio Antonio Zabalak:

*Aitatzen diren beste jaun oien aztarrenik ez degu arkitu, Frantxo eta oiena alegia, billa saiatu bagera ere.*

Beste zenbait izen ere aipatzen da bertso hauetan, baina horien argitasun pizarrak, bertso bakoitzaren azpi-oharretan ematen dizkizut gero.

## GARAI HARTAKO JERGA POLITIKOA

Garai hartako gudalburuen izenak eta izengoitiak ezezik, politikan erabili ziren esamolde eta hitz berezi batzuk ere ageri dira bertsoetan, eta honatx nabarmenenetako batzuk segidan:

-**Peseta bicoac:** *liberalac, konstituzio zaleak...* Honelatsu dio Lehen Karlistadako koplak ezagun hark ere:

Gobernuak baditu *pezeta bikoak* (bis)  
Bai eta Don Karlosek bolontarioak  
Bolontarioak, ez jornaleroak.

Beren burua *pezeta bitan* saltzen zutelakotz edo, *jornaleroak* ere deitzen zien liberal konstituzio zaleei realistek. Eta liberalek berriz, *serbilak*.

-**Trágala:** Garai hartan maiz erabilitako hitza. Honela dio Antonio Zavalak: "Liberalen kanta zan ori, realistei burla egiteko asmatua (...) estribilloak onela zion guxi gora-bera: «Trágala, trágala tú, servilón, tú que no quieres Constitución». Esaera ori eguneroko izkeran sartu zan gero, eta gaur egunean ere erabiltzen da: cantarle a uno el trágala. Iñori gogoko ez duana irentsi araztea esan nai du" (ASN4, 40. or.).

Testubarren horretan sortua zen *serbil* deitura iraingarria ere:

*Amaika bidar etzun genduban trágala,  
zalako gure errija ziñuen serbilla*  
(ASN4, 21. or. 24. bertso bukaera).

Liberalak realistei edo monarkia zale absolutistei deitzen zien *serbilak*, gihar giharretik iraindu asmoz. Manezaundi luzaidarrak ere hala dio absolutisten gerrate hartaz ipinitako *Donostian Soldado* izeneko bertso sailean:

*Nafarroako serbil lepondo gorriak  
Luzifer lotsa diro haien koloriak.*

Eta J. M. Satrustegi zenak esaten zuen, bertso horietan erriberakoak direla "*Nafarroako serbil lepondo gorri*" horiek. Gu, aldiz, *montañesak*, mendialdeko nafarrok.

-**Lairon(ak):** liberalak ziren *laironak*, eta zenbait aldiz *lairon arruak* deitzen zieten realistek. Nondik sortua ote da gure kanta zaharretako lelo onomatopeiko hutsa dirudien hitz sorgin hori? Orotariko Euskal Hiztegiak jaso ez badu ere, usu ageri baita garai hartako bertsoetan. Hara nola:

*Sabelak estututa, ezpanak sikurik,  
dabiltz laironak orain buruz beraturik  
poltsak urritu eta, ez adiskiderik...*

*Tragau biariko dala euren aginduba  
dogu lairon arruen lelo ta suñuba...*  
(ASN4, 26. or. 8. bertso amaiera).

*Baña damatxu arro ta bere laironak,  
Napoleontar almutz ondo ezagunak,  
leenago ler egingo dozube guztijok  
guri ezarri baño zuben buztarrijok*  
(ASN4, 28. or. 14. bertsoa).

*Ai, liberal tristiak, egin dau zubenak  
laster dozuz ikusi betiko azkenak.  
Laironak lutuz dagoz, damia geixorik,  
ez dago osatzeko inun medikurik.*  
(ASN4, 29. or. 21. bertsoa).

*Agur bada betiko, liberal arruak  
agur lairon ta dama agonijakuak.  
Kadiztik urten eta biurtu bertara  
zuben azur ustelok an obitutera.*  
(ASN4, 30. or. 24. bertsoa).

Bistan da, beraz, hitzetik hortzera erabilia izan zela *lairon* hitza, realisten eta liberalen garaiko espa bizi hartan. Bordatxuriko amona zenari behin baino gehiagotan entzun izan omen dio Javier Salbarredik *lairona* hitza Berastegin, gutxi gorabehera *bilaua*, *traidorea* edo gisako esanahiarekin. Kontuak hola, uste dut ongi merezia lukeela txoko ttiki bat euskal hiztegieta ere.

-Viva viva!...: Jakinen nuke pozik, lehendik nola adierazi duen euskaldunak esklamazio modu hori, bere hizkera naturalean, euskaraz alegia? Sabino Arana Goiri gidari zutela, jeltzale garbizaleek *Gora Euzkadi!* sortu eta ugaldututenean, falanjistek aterea izan behar du *“Arriba España”* sonatu hura ere, jeltzaleen kalko hutsez eta mendekuz. Edo alderantziz ote da?...

Dena dela, nik uste, orduko eta puskaz lehenagoko euskaran ere, *Viva!* edo *Biba!* zela Bizkaitik Zuberoaraino erabiliena. Baina ez du merezi gauzak nahastent berriz hasteak. Ikus, nahi izatera, auzi zaharberritu honen gainean *“Dakiguna ikasten”* liburuan 63-66 orrietan neronek orain berriro esandakoak.

## BESTE OHAR TTIKI BATZUK, BERTSORIK BERTSO

Aurreneko txandan bertsoak leitu, eta baliteke, gauza asko ez ulertu izatea. Orain berriz ikus ditzakezu, hona arte esandakoaz gainera, neronek bertsoz bertso egindako azpi-ohar ttiki batzutan erreparatuz. Bai, badakit, nere oharpen ezerez horien orde, zuk beste batzuk eginen zenituzkela, seguru aski. Egin bada, nereak zuzendu eta edertuz, nik behintzat, bihotzez eskertuko baitzikizut.

### 1

Oraingo pasadizoa  
nai nuque declaratu  
izango dala derizat<sup>1</sup>

<sup>1</sup> *derizat*: deritzat: iruditzen zait, *eritzi* aditzaren erabilera trinkoa.

ni ceñec amparatu  
 biñipiñ lagun guchic  
 ez nabe<sup>2</sup> encargatu:  
 ez naizela galduco<sup>3</sup>  
 nai badet empeñatu  
 cerbait iceguin<sup>4</sup> gabe  
 ez ninteque gueratu

2

Milla ta zorcireunda  
 obei garren urtean  
 ¡O cer penac sortu ciran  
 jendearen artean!  
 cristandadea besteric  
 ezan erreinu batean  
 jangoicoaren leguea  
 arturic oin pean  
 postura onetan luzaro  
 gu ecin gueundezquean.

3

Au zan Marchoco illaren  
 bederaci-garrena  
 erregue<sup>5</sup> juramentura  
 obligatu zutena  
 publicatu cioten  
 bere bicia pena  
 ezpazuen eguin nay  
 aguincen ciotena  
 orduban cumplitu zuten  
 zori gaiztoco lema

4

Beti presidioan  
 da gure principe<sup>6</sup>  
 numbait ezayo combeni  
 gustoric izatea  
 baldin posible bada  
 biciric etorcea  
 demboraz billatuco du

<sup>2</sup> *nabe*: naute. Leitzako adizkera ekarri dit gogora. Badira *leitzarrismo* gehiago ere tarteka: 1/5 *biñipiñ*; 2/2 *obei* + 19/1 *obey*; 13/3 *arrastoac*; 19/4 *nabe* berriz ere.

<sup>3</sup> Horretan sinale, giro gaiztotu hartan, bertsoak ateratzeak bere arriskua bazuela.

<sup>4</sup> Honezkero konturatuko zinen, bertso berrion egileak ez dituela oraindik *tz*, *ts*, *tx* euskal fonemak ezagutzen, beti *z* (*c*), *s*, *ch* forman idazten baititu, garai hartan normala zen bezala: 1/9 *iceguin*: hitzegin; 3/1 *marchoco*: martxoko; 3/2 *bederaci*: bederatzi; 3/8 *aguincen*: agintzen; 4/3 *ezayo*: etzaio; 5/9 *ezaigu*: etzaigu... Erne, beraz, nahastu gabe.

<sup>5</sup> *errega* hitza -a itsatsirik gabe darabil, *errega* jarri behar zuen bestela.

<sup>6</sup> Fernando VII. *errega*, liberalen menpe Frantzian dagoena, alegia.

onec bere cortea  
ordubanchen<sup>7</sup> egongo da  
españian paquea.

5

Erregutu jesusi  
ceñec bere partetic  
len bailen libra dezala  
trance orretatic  
falta degun artean  
au bere parajetic  
sebu<sup>8</sup> izango guera  
paquea izatetic  
sin causa ezaigu irten  
guizon ori echetic

6

Estadu negargarrian  
bear guenduen jarri,  
lecu eman bacizayon  
constitucioari.  
colorea eman arren  
gañetic edergarri  
religioric gabe  
izango guiñan sarri<sup>9</sup>  
gauza ori sortu zutenac  
bastante dira larri.

7

Oso galdu ez dedin  
gure nacioa,  
condenatu dezagun  
constitucioa,  
libertade gaizto ta  
droga ta sesioa<sup>10</sup>  
ori da legue orrec  
dacarren lecioa  
berriz ere bearco da  
inquisicioa.

8

Orain guizona franco  
badegu españian  
esperanza onetan

<sup>7</sup> *ordubanchen*, hurrena berriz, 11/10 bertsoerlean *orainchen* azken *-n* horrekin.

<sup>8</sup> *Sebu*: seguro. Bihurrera honek, *g<b*, beste hitz bat ekarri dit gogora: *abudo* < agudo.

<sup>9</sup> *Sarri*: laster, belaxe, geroxeago, denbora gutxi barren.

<sup>10</sup> *Sesioa*: elkarren arteko gatazka, istilua... Badirudi, bertso honetako diskurtsoa sekula guzikoa izan duela jendaje kontserbadoreak, gaur ere igoaltsu segitzen baitu.

guiñaden<sup>11</sup> aspaldian  
 cergatican cebilzan  
 chit asco picardian  
 erdic ecifi fiatu  
 eheco familian  
 lanic asco baguenduen  
 norc bere alderdian.

9

Guztien aguintari da  
**duquean gulema** (sic)<sup>12</sup>  
 gauzac componcen dabil  
 aldan ondoena  
 aren contra ciranac  
 daducaten pena  
 iñundic ecin eguin  
 berac nai duena<sup>13</sup>  
 juezac emango du  
 bear dan ordena.

10

Alabatu dezagun  
 gorostidi<sup>14</sup> jauna  
 Orrec mereci ditu  
 onrra eta fama  
 bera etorri zaigu  
 franciatic aurrena  
 obretan ezagun du  
 quizon fiña dana  
 ascoc icusi nai du  
 zucen dabillena.

11

Chit da balientea  
 berorren batalloya  
 beren alde daucazquite<sup>15</sup>

<sup>11</sup> *giñaden*, ikus gero, berriz 19/8an *dirade*. Nondik sortua ote dugu aditz *buztan parasito* hau, *-de dirade, ziraden, gerade, giñaden, zerade, ziñaden...* Ez ote da erdararen kalkoz hizkera jasoago edo nobleago erabili nahi antzu batek kutsatua izanen? Honela darabil, besteak beste, Kixotek, lehen parteko XIV. kapituluaren akaberan: *si desta contienda y caida quedárades con vida* eta baita XIX kapituluaren bukaera aldera ere: *Si no os picárades más de saber(...), vos llevarades el primero en licencias, como llevastes cola*. Ez dakit euskal filologoek aztertua duten aspaldiko *aditz-buztan* honen sorrera eta ibilera luzea, baina, horra nik nere ezjakin guzian hizkuntza batetik besterako zubiaren sokamuttur batzuk azaldu. Garaitsu berean, J.I. Iztuetak ere, barra barra darabil, *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondairan*, hasiera beretik: *diradenak, zeraden, geradenentzat, etziñaden, diradela, ziradelarik...*

<sup>12</sup> Ikus ORDUKO GUDALBURU BATZUK atalean duke honen datuak.

<sup>13</sup> *berac naiduena: berec nahi duena*. Lehendik konturatuko zinen, Bertso hauetako adizkeran, galdu egiten dela *u-e* bokal arteko *-t-* hori: 13/6 *ecin complitu due, eman zuen iza*: ezin kunplitu dute, eman zuten hitza. 18/7 *izan due*: izan dute; 20/7 *duenac*: dutenak.

<sup>14</sup> Ikus ORDUKO GUDALBURU BATZUK atalean jeneral honen kontuak.

<sup>15</sup> *daukazkite*: dauzkate, daduzkate. Goizuetan *dauzkite* esaten dugu oraindik.

beac eta goya  
 jangoicoac emanic  
 orrelaco doaya  
 guero ere atera du  
 bere arrazoya  
 graciac emateco  
 orainchen da sasoya.

12

Viva viva **Goristidi**  
 gure defensora  
 oy au guizon estimatu  
 pareric gabea  
 aspaldi iduqui det nik  
 bedorren<sup>16</sup> galdea  
 cuidadotan beti nola  
 dabilen abadea<sup>17</sup>  
 asco amparatu du  
 gure cristandadea.

13

**Arzaya**<sup>18</sup> ta **Soroa**<sup>19</sup>  
 nundic ote dabilza  
 billa nabil arrastoac  
 atera albaninza  
 ecin cumplitu due  
 eman zuen iza  
 jangoicoac ezte eman  
 orrenbeste dicha  
 orain bijoaz *por alto*  
 mereci duen guisa

14

Orra irugarrena  
 orain **Asura** jauna<sup>20</sup>  
 guizon abilla dala  
 izandu du fama  
 logratu<sup>21</sup> izan balu  
 deseo zuana  
 laster galduco zuen

<sup>16</sup> *berorren* lehen, 11/2 bertsolerroan, eta *bedorren* orain. Inbidia ematen du hitzak letra bihurtze-ko naturaltasun lasa horrek, gaur egungo xuxenkeria ortografiko edo fonologiko extu eta ergel hone-tatik begiraturik, bai behintzat.

<sup>17</sup> Liberalen aurka altxa aurretik, Anoetako erretore izana baitzen.

<sup>18</sup> Ikus ORDUKO GUDALBURU BATZUK sailean *Artzai* honen kontuak.

<sup>19</sup> Ikus ORDUKO GUDALBURU BATZUK sailean jaun honen aipamenak

<sup>20</sup> Ikus ORDUKO GUDALBURU BATZUK sailean *deitura* honetaz esandakoak.

<sup>21</sup> Zenbat bider leitua ote nago *logratu* aditza bertsopaperetan! Orain *lortu* erabiltzen dugu, baina, ez da oso aspaldiko *puritanismoa* ere. Euskaragoa ote da ordea *lortu*?



gure legue ona  
 baño beti esperanza  
 jangoicoagana.

15

Beren<sup>22</sup> capitanarequin  
**peseta bicoac**<sup>23</sup>  
 lapurretan eguiteco  
 guztiz ciran *pjoac*<sup>24</sup>  
 bazuec pobreac ciran  
 besteac *aundiscoac*<sup>25</sup>  
 aizaqui ona zuten  
**anchicen**<sup>26</sup> mendicoac  
 ezdituzte atera  
 prodijio gaiztoac.

16

Oraingo cenbat guizon  
 chit dira ajenteac  
 baña gure ezquera  
 arras inocenteac  
 ya franco icusi du  
 necazari jendeac  
 orobat<sup>27</sup> adizen dira  
 beste trabajanteac  
 eztu iñorc ongui arcen  
 daducana quenceac.

17

Constituciozale  
 picaro ingratoac  
 lucifer eta Barrabas  
 ciran becin gaiztoac  
 jan edan bicio gaizto  
 gañeraco jocoac

<sup>22</sup> Askok galdu da pluraleko *beren* hori, eta *bere* erabiltzen da kasik beti pluralean zein singularrean, holako konkordantzia asko galtzen ari da euskara joskeran, hizketako isuria eta zehaztasuna ahuldu ahalean.

<sup>23</sup> *peseta bicoac*: liberalac. 18/2 bertsoerlean berriz: *peseta bicoaz*.

<sup>24</sup> *pjoac*: ausartak, trebeac, azkarrak... Ez, ez zen gaurko *pjo* klasea. Oroitzen Bautista Bazterretxeren bertsoaz? Hemen bezalaxe, hartan ere lapurretari lotua ageri da *pjo* kontua:

*Bautista Bazterretxe, muriko pijua,  
 nere gurdi ardatza (bis), ostuta dijua.*

<sup>25</sup> *aundiscoac*: haundi samarrak, aberats antzekoak... Gaur *haunditxoak* esanen lukete seguru aski, Berastegi aldean, erruz galdu baita *-sko* atziskiarene erabilera ugaria: *gutisko, luzesko, maitesko, gehisko, idisko, zurisko, berrisko, ttikisko, motzesko, altusko, goitisko, hobenskonak*... Zenbat modutara aditua ote nago Goizueta aldean!

<sup>26</sup> Ikus ORDUKO GUDALBURU BATZUK atalean, honi buruzko zalantzak.

<sup>27</sup> *orobat*: *hala berean, igual berean*. Gaurregun herriak galduxea duen esanera.

cumplituceco bacituzten  
guri quendutacoac  
eztaquit nola daduzcan  
biciric jangoicoac.

18

Iñorc galdecen badu  
peseta bicoaz.  
aurtengo ardien guisa  
diranac badijoaz  
dañu<sup>28</sup> aundiric eztago  
oyec izcutatuaz  
oso ernegaturican  
cebilzan jangoicoaz  
notici obeac ditugu  
(...?)<sup>29</sup> mendicoaz.

19

Constitucio ori  
bijoia noramala<sup>30</sup>  
erraz esan dezaquegu  
arrazoya dala  
cergatic atera zuen  
pensamentu argala<sup>31</sup>  
aspaldian izan due  
bear aimbat gala  
orain cantacea due<sup>32</sup>:  
viva **lairon tragala**<sup>33</sup>.

<sup>28</sup> *dañu*: kalte. Hagitz maite dut hitz hau, eta berriz esanen dut *kaltetu* baino euskara hobetagoa iruditu izan zaidala beti *dainatu* aditza. Eta hala ez balitz, eskertuko nuke bihotzez, filologo argiren batek esplikatzea zergatik. Orain hamar urte Xabier Mendiguren gaxtearekin aritu nintzan ezbaian, eta atzo bertan leitzen nion Koldo Zuazo jaunari, *dañu* erdarakada gordiña dela (Euskalkiak, 84 or.). Hau mixeria gurea!...

<sup>29</sup> hitzen bat falta da hemen, eta nik esan behar banu, 15/8 bertsolerroko *Anchizen* edo delako hori da falta dena. Ikus ORDUKO GUDALBURU BATZUK atalean, honi buruzko zalantzak.

<sup>30</sup> Erruz ageri dira *noramala* eta *norabuena* hitzak garai bateko bertso zaharretan, espainolezko *enhorabuena/mala* (en hora buena/mala) esaneratik hartu eta euskarazko *nora* zentzura ekarri grazioski etxekotuak. Leitzarrek eta aresoarrek 1860 aldeko ihautetan izandako borrokaldia zela medio ateratako bertsoetan ere, honela dio hasierakoak:

*Aisoarren bandera  
Ai nolakoa ote da!  
Errekaldia ekarri due  
erakustera.  
Gero leitzarrek bidera  
norabuenak ematera  
aal zuenak ariñ yoan ziren  
inaittera.*

Begibistakoa da, "norabuenak ematera" horrek, ironiaz "egur ematera" esan nahi duela.

<sup>31</sup> *argala*: ahula, kaskarra, txarra,... eta ez preziskiki *mehe*, *mehar* huts.

<sup>32</sup> *cantacea due*: kantatzea daukate, (kanta dezatela, nahi badue), (kanta dezakete)...

<sup>33</sup> *lairon tragala*: ikus bi hitzonen zentzua ORDUKO JERGA POLITIKOA sailean.

20

Orra orain obey verso<sup>34</sup>  
 sermoy baten pare  
 oraingo ocasioac<sup>35</sup>  
 obligatu nabe  
 iñorc eguin nai badu  
 arrazoyen jabe  
 miñ artuco duenac  
 nosqui badirade  
 orra nic declaratu  
 errecelo gabe.

## KANTATZEKO EDO LEITZEKO BERTSOAK OTE?

Hiru orri ditu bertsopaperak guzitara; aurreneko biak zortzina bertso-koak eta azkenean laukoa. Izatez, bosna puntukoak dira bertsoak, baina doinu jakin bat hartuta kantatzeko, neurri nahasi samar batean idatziak daudela ematen du. Niri behintzat, ez zait batere samurra egin, esaldiak doinu jakin baten neurrira plegatze kontua; eta hirulau modutara benik saiatu naiz gu-xtienez.

Beste aldetik, berriz, bai esaldiak antolatzeke eta elkarri josteko tankeran, bai erriman, bertsolari kastako belarria duela iduritu zait egileak. Nola liteke, orduan, esaldiaren oina ongi etorriarren, doinuan ezin sartu izatea? Honetan inor baino lehen eta inor baino erneago aritua zen Orixek, honela erakutsi zigun:

“Ona emen lerro oiek neurtzeko bi bide: lelotarako edo kantatzeko egin direnena, eta esateko edo irakurtzeko egin direnena”.

Eta hara nola argitzen dituen beste berastegiak batek, Paulo Iztueta jaunak<sup>36</sup>, Orixek honetaz hain belarri eta buru ernez esandakoak:

”Orain ulertzen da Orixek zergatik aplikatzen duen bertsoen neurketan batzuetan *silaben legea* eta besteetan *oinena*, segun eta zertarako den, *kantatua* ala *irakurria* izateko (...).

Kantatzeko bertsoari doinuak ezartzen dio erritmoa; irakurria izatekoari, aldiz, hizkuntza mintzatuari darion berezko doinua dagokio eta horri segitu behar dio neurriak (...) eta bertsoak egiterakoan, oso kontuan hartu behar dira kantatuak ala errezitatuak izateko egiten diren”.

Horra aukera ederra, Orixeren teoria horrek zinezko funtsik baduen proba egiteko. Hartu eskuan bertsook, eta egileak doinu baten arabera kantatzeko sortu ote zituen, edo inolako doinurik gabe bere usarioko hizketaren barne erritmoaren ariora irakurtzeko edo errezitatzeko sortu ote zituen ikus-tea, batera eta bestera probak eginez.

Ni ez naiz batere aditua, metrika eta oin kontu xorrotxotan, baina, Ori-xek honetan arrazoi guzia zuela aitortuz, eginen nuke apustu, irakurriak izateko sortuak direla bertsook, eta ez, inondik ere, doinu jakin baten lelora kantatzeko.

<sup>34</sup> hasierako titiluan *berso*, eta hemen *verso*, berriz.

<sup>35</sup> *ocasioac*: disputak, elkarren arteko gatazkak, ezin konponduak, istiluak.

<sup>36</sup> ORIXE SAIOGILEA, 167-168 orriak, *Triusque Vasconiae*, 2003.

## EGILEAZ ARGIBIDE BATZUK

Bertsook idatzi zituenen nor izan zen jakiteko, bigarren bertsoan aitazten den urtea, *“milla ta zorcireunda obei”* buruan ongi hartu, eta bizpauru urte goitibeheiti, garaitsu horretan Berastegiko elizako paper zaharrak aztertuz, eta idazkerak konparatuz, atera liteke nor zen bertsoon idazlea. Baina, oraingoz ez dut horretarako betarik hartu; ez eta azterlan honek, hango eta hemengo artxiboetan eskatuko lukeen segimendurako patxadarik ere.

Dena den, gai honen arrastoan zer edo zer ibilia den Javier Salbarredik esan didanez, Juan Antonio Loydi izan omen liteke bertsoon egilea; sortzez Leaburuko Kilimodi baserriko semea, eta Berastegin aldi batez apez izana, noski.

Nolanahi dela ere, idazteko grazi puxka bazuela ezin ukatu. Eta sermoi kontuez ari garela, ez ote zituen bertso hauek ere mezan kantatzeko edo deklamatzeko idatzi izanen? Larri ibili. Begira zer esaten duen atzeneko bertsoan:

Orra orain obey verso sermoy baten pare  
oraingo occasioac obligatu nabe...

Edozein gerratetan ere, maiz erabili baitzuten apaizek, kulpitutik sermoi ikaragarri eta espantu bidez, euskaldun nekazari inoxoak alde batera edo bestera iraultzeko atarramentua. Segurantzia osoz ezin esan, ordea, zein izan zen bertso hauen egilea. Ez baita, gainera, batere, harritzeko bere eskua eta izena estalixetzen saiatzea ere, holako istiluetan. Inork izatekotan, Aita Zavalak argituko liguke hobeki, baina, oraingoz ezin hasi gure patriarka xaharra nolana nahi molestutzen; inoiz baino larriago, bere lan haundietan itoxea baitabilki-gu atzenaldi honetan. Hala eta guzi, ni baino trebeagoren batek asma baleza, eman biezaio aspaldiko ezjakin honen berri, nire animorik bihotzekoenak adierazi bidenabar.

## ESKERRAK BIHOTZEZ:

Bukatzeko, nere eskerrik bihotzekoenak, Javier Salbarrediri, bertso paper hau nere esku baldarretan uzteko atrebentzia izategatik, eta Kontxi Zozaiari, gero bertsook dokumentatzeko, Auspoaren Sail Nagusitik, *Karlisten Leenengo Gerrateko Bertsoak* izeneko liburua uztean erakutsitako borondateagatik, eta nola ez, Patxi Salaberri jaunari, orriotan argitaratzeko ardura beregain hartzeagatik.

## LABURPENA

### *Berastegi 1823: "Berso berriac"*

Karlistaden garaiko bertsoak, bietakoak ere, aski ezagunak ditugu Aita Zavalak egindako bilketa eta azterketa lan ikaragarriari esker. Baina, realisten gerrateak ez zuen halako hotsik atera, ez eta orduko bertsoek ere. Bada, idazlan honetan, hain juxtu ere, hain ezaguna ez den gerrate hartako bertso paper ezezagun batzuen azalpena egiten da, beren garaian eta giroan txertatu bidenabar, testua xehero aztertuz.

Berastegin apez izandako batek paratuak izan litezke bertsoak, hala adierazi digu, behintzat, bertso paper honen zuztarrena eman digun Javier Salbarredi jaunak, baina, segurantzia osoz ezin esan.

## RESUMEN

### *Berastegi 1823. Nuevos "versos"*

Los versos (composiciones poéticas vascas) de la época de las guerras carlistas son bastante conocidos, gracias a la inestimable labor realizada por el padre Zavala. Sin embargo, la guerra de los realistas no tuvo tanta resonancia, ni tampoco los versos de aquel entonces. En este artículo hacemos un análisis minucioso de ciertas composiciones desconocidas hasta ahora, e intentamos situarlas en su época y en su ambiente.

El autor podría ser alguien que estuvo de cura en Berastegi; así opina al menos Javier Salbarredi, a quien debemos la pista de los textos que analizamos. Con todo, no se puede estar completamente seguro de ello.

## RÉSUMÉ

### *Berastegi 1823: "nouveaux" vers*

Les vers (compositions poétiques basques) de l'époque des guerres carlistes sont assez connus, grâce au travail inestimable du père Zavala. Cependant, ni la guerre des carlistes ni les vers de cette époque n'ont eu autant d'écho. On fait ici, une analyse minutieuse de certaines compositions inconnues jusqu'à présent, et on essaie de les situer dans leur époque et dans leur ambiance.

L'auteur pourrait être quelqu'un qui a été prêtre à Berastegi; c'est au moins ce que pense Javier Salbarredi, à qui nous devons la piste des textes que nous analysons. Cependant, on n'en est pas absolument sûrs.

## ABSTRACT

### *Berastegi 1823: "new" verses*

Verses (Basque poetical compositions) from the period of the Carlist wars are relatively well-known thanks to the invaluable work performed by Padre Zavala. However, neither the war of the royalists or verses from that time had such impact. This article performs a meticulous analysis of certain compositions unknown until now and tries to locate them in their epoch and atmosphere.

The author could be someone who worked as a priest in Berastegi; that, at least, is the opinion of Javier Salbarredi, to whom we owe knowledge of the texts analysed. We cannot, however, be entirely sure of this.

